

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Marijo Garmendia Txapartegi*

*Tolosa,  
Gipuzkoa  
(1962)*

Aurkibidea



## Biografia



Tolosan jaio zen. 12-13 urte zituela, Elgoibarrera joan ziren bizitzera. Aldaketa handia izan zen berarentzat. Ordura arte euskaraz egiten bazuen ere, Elgoibarren gaztelania nagusitu zitzaion. Ikasketak guztiak gaztelaniaz egin zituen eta amarekin bakarrik erabiltzen zuen euskara. Ikasketak bukatu ostean, euskara ikasten hasi zen Elgoibarko Udal Euskaltegian eta hilabete batzuen buruan atera zuen titulua. Euskararekiko kontzientzia hartuta, ordutik euskaraz bizitzen saiatu izan da eremu guztietan. 1984an Elgoibarko Zazpiki irrati librea martxan jartzen parte hartu zuen. Garai hartan Psikologia ikasketak egiten ari zen Donostian eta asteburuetan, herrira itzultzean, pare bat irratsaio egiten zituen. "Elgoibarko euskararen historia soziala" proiekturako egin zitzaion elkarrizketa.

## Zintak

### TOL-085

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Elgoibarren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2023-05-18
- **Iraupena:** 27 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

## Pasarteak

### 1. Tolosatik Elgoibarrera aldatzean, euskara alboratu zuen

- **Erref:** TOL-085/004
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:00:48. **Bukatu:** 00:02:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

Tolosan jaio zen eta 12-13 urterekin iritsi zen Elgoibarrera. Aldaketa gogorra izan zen berarentzat. Ordura arte euskaraz bizi zen, baina Elgoibarren ez zen euskararik hitz egiten. Etxean ere amarekin euskaraz, baina aitarekin gaztelaniaz. Gainera, euskaldunekin euskaraz hasten zenean, barre egiten zioten, bere euskara desberdina zelako. Arrazoi horiengatik euskara alboratu egin zuen.

**2. Euskaltegira joan eta euskararekiko kontzientzia piztu**

- **Erref:** TOL-085/005
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:02:54. **Bukatu:** 00:04:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

**Laburpena:**

Ikasketak amaitu zituenean, euskara ikasten hasi zen Elgoibarko Udal Euskaltegian. Agurtzane Epelde izan zuen irakasle. Orduan atera zuen barruan gordeta zuen guztia. Oso gustura sentitu zen. 4-5 hilabetean EGA atera zuen. Euskararekiko kontzientzia hartuta, lagunartean ere euskaraz egitea erabaki zuten.

**3. Zazpiki irratiaren sorrera I**

- **Erref:** TOL-085/008
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:04:31. **Bukatu:** 00:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

**Laburpena:**

Donostiara joaten zen ikastera eta gustuko zituen fanzineak batzen zituen. Musika zalea ere bazen, batez ere orduan modan zegoen rocka edo punka. Mugimendu kultural handia zegoen eta Elgoibarko taldetxo bati irrati libre bat sortzea bururatu zitzaion. Koldo Aranburu izan zen irratiaren bultzatzaile nagusia eta izena ere berak jarri zion. Gogoan du Hala bedi irratia ezagutzea joan zirela, Zazpiki irratia martxan jartzerako.

**4. Zazpiki irratian egiten zituen saioak**

- **Erref:** TOL-085/009
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:06:00. **Bukatu:** 00:08:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

**Laburpena:**

Asteazken zehar Donostian egoten zen ikasketengatik. Bere intereseko kontuak biltzen zituen han (musika kontuak, fanzineak...) eta gero asteburuetan Zazpiki irratiaren irratsaio batean komentatzen zituen. Bera orduan gaztelaniaz bizi zen eta irratsaioa gaztelaniaz egiten zuen. Geroago beste irratsaio bat egiten hasi zen umeekin larunbat goizetan eta han jada euskaraz hasi zen pixkanaka. Irratiaren sorreran euskarazko saioak ere egingo zirela uste du, baina beraiantzat oso ohikoa zen gaztelaniaz egitea. Berak ez zuen guztiz galdu euskara, amarekin egiten zuelako, baina ez zuen erabiltzen.

**5. Elgoibarko institutuan lanean; Euskara mintegiko kideak**

- **Erref:** TOL-085/010
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:08:46. **Bukatu:** 00:11:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

**Laburpena:**

Elgoibarren euskararen egoerari izugarritzko buelta eman zitzaiola uste du. Ikasketak bukatu ostean Elgoibarko institutuan lan egiteko aukera izan zuen. Hango euskara mintegiko kide ziren Angel Ugarteburu, Andres Alberdi, Iñasio Garmendia, Miriam Villasante... Lan izugarria egin zuten bai institutua eta bai ikasmateriala euskaratzen eta erreferenteak izan ziren. Urte asko egin zituen han lanean eta asko ikasi zuen. Garai hartan jada D ereduaren nagusi institutuan.

**6. Zazpiki irratiaren sorrera II**

- **Erref:** TOL-085/011
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:11:32. **Bukatu:** 00:13:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

**Laburpena:**

Zazpiki irratiaren sortzeko bilerak Gabi tabernan egiten zituzten. 10 lagun inguru ibiliko ziren sorreran. Dirua lortzeko, txosnak jartzen zituzten eta baita kontzertuak antolatu ere. Hasieran gaur egun Kultur Etxea dagoen lekuan egon zen Zazpiki irratiaren eta geroago Aita Agirre plazan.

**7. Umeekin egiten zuen irratsaioa**

- **Erref:** TOL-085/012
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:13:22. **Bukatu:** 00:14:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

**Laburpena:**

Zazpiki irratian umeekin egiten zuen irratsaio bat larunbat goizetan. Ume batzuekin euskaraz eta beste batzuekin gaztelaniaz. Kantatu ere egiten zuten zuzenean.

**8. Irrati librean mugimenduaren testuingurua**

- **Erref:** TOL-085/013
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:14:28. **Bukatu:** 00:17:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

**Laburpena:**

Irrati librean askatasunaren aldarrikapena izan ziren. Ez zegoen gazteen gustuko gaiak jorrotzen zituen edo gazteen gustuko musika jartzen zuen irratarik eta irrati librean nahi zutena jar zezaketen, inolako zentsurarik gabe. Mugimendu bateratu bat izan zen. Beraiek Halabedi irratia izan zuten eredu. Garai eroak izan zirela dio: politikoki garai gogorra eta drogen eragina ere izugarria izan zen gizartean. Errotatxo elkarteak egindako lana.

**9. Borondatezko lana Zazpiki irratian; euskararekiko jarrera**

- **Erref:** TOL-085/015
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:17:54. **Bukatu:** 00:19:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

**Laburpena:**

Jendeak borondatez lan egiten zuen Zazpiki irratian. Asteaz zehar asko lanean edo ikasten zeuden. Zaila zen ordu guztiak betetzea. Berak larunbatetan bi saio egiten zituen eta igande goizean beste bat. Zazpiki irratian bazegoen euskararen aldeko jarrera. Lankideek esaten zioten bere saioa euskaraz egiteko, baina bera une hartan ez zen horretarako gai sentitzen.

**10. Gaztetxearekin harremana; diru-iturriak**

- **Erref:** TOL-085/017
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:19:39. **Bukatu:** 00:21:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Taberna giroa » Gazteendako lekuak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

**Laburpena:**

Gaztetxearekin harreman zuzena zuen Zazpiki irratia. Elkarri laguntzen zioten. Zazpiki irratian zebilen jendea saltsa askotan sartuta zegoen. Herriko jaietan euren txosna propioa jartzen zuen Zazpikik. Irabaziekin materiala eta diskoak erosten zituzten. Udalak lokala uzten zien. Pare bat urtean "Udaberri eguna" antolatu zuten.

**11. Donostiako giroa ikasle sasoiari**

- **Erref:** TOL-085/020
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:22:33. **Bukatu:** 00:24:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

**Laburpena:**

Donostian ikasten egon zen sasoiari asko gustatzen zitzaion El Huerto tabernara joatea, han jartzen zuten musikagatik. Gainera, fanzine pila bat egoten ziren eta interesatzen zitzaizkionak hartzen zituen. Gaztelaniaz ziren gehienak. Berak Zorroagan ikasi zuen eta ordurako bazegoen euskaraz ikasteko aukera, baina artean ez zen gai sentitzen. Bere ikaskide batzuek, esaterako, Fermin Muguruzak, ikasgai batzuk euskaraz ematen zituzten. Ikasketak amaitu ostean, euskaltegira joan zen eta gozatu egin zuen.

**12. Euskara galdu eta berreskuratu duen euskaldun zaharra**

- **Erref:** TOL-085/022
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:24:23. **Bukatu:** 00:25:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena:**

Bere buruaren definizioa: euskara galdu eta berreskuratu duen euskaldun zaharra. Euskara zeharo baztertuta izan zuen, konplexuagatik, baina batez ere espainieraren inposizioagatik. Kontzientzia nola hartu zuen. Gaur egun euskaraz bizi da.

**13. Euskara, identitatearen ezaugarria**

- **Erref:** TOL-085/024
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:25:52. **Bukatu:** 00:26:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

**Laburpena:**

Euskara barnean duen altxor bat dela dio. Askotan ez gara konturatzen gure hizkuntzaren aberastasunaz. Bere identitatearen ezaugarri bat da euskara.

---

**Garmendia Txapartegi, Marijo** | ahotsak.eus Orr.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-29

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com